



Argazki-lehiaketa **Iruña Fokatu eta 2023ko udal-egutegia.**

Iruña Fokatu. Iruñean ateratako argazkiak, hiriaren begirada pertsonala islatzen dutenak.

2023ko udal-egutegia. Epaimahaiak hautatuko ditu 2023ko udal-egutegiko argazkiak.

Lehiaketara aurkezten diren argazki guztien artean, epaimahaiak hautatuko ditu udal-egutegiko irudiak eta Fokatu lehiaketan saritutakoak.

Pertsona bakoitzak, gehienez ere, hiru argazki, argitaratu gabeak, aurkezten ahalko ditu. Ez dira onartuko jadanik argitaratutako edo beste lehiaketaren batean saritutako argazkiak. Teknika libre. Argazkiak bakarrik formatu digitaletan aurkezten ahalko dira.

Argazkiak JPEG formatuan aurkeztuko dira (gutxienez, 72 ppi-ko bereizmena). Irudiaren tamaina gehienez 2 MBkoa izanen da; 794 x 1077 px-ekoa, formatu bertikalean, eta 1077 x 794 px-ekoa, formatu horizontalean. Neurri horiekin aurkeztutako irudiak epaimahaiak baloratzeko baino ez dira erabiliko. Ondoren, udal egutegirako edo erakusketarako saritutako edo hautatutako argazkiak bereizmen handian aurkeztu beharko dira, lehiaketaren antolatzaileek hala eskatzen dutenean.

Epaimahai teknikoaren lana errazteko, argazkiak aurkezten duen pertsonak bere gain hartzen du argazkietan agertzen diren pertsonen baimena.

IZEN-EMATEA:

Lehiaketan online emanen da izena www.pamplonaescultura.es edo www.pamplonaescultura.es/eu webguneetan

INPRIMAKIA BETETZEKO BEHARREZKO INFORMAZIOA:

Datu pertsonalak, NAN, jaioteguna eta jaioterria, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa.

*Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak babestutako datuak.

Horrez gain, argazkia zein egunetan eta zein toki zehatzetan egin zen, eta argazkiaren deskribapen laburra azalduko da. Garrantzitsua da tokia adieraztea edo zehaztea, epaimahaiaren lana eta erabakia errazte aldera.

Epaimahai teknikoa argazkilari profesionalek eta Iruñeko Udaleko teknikariek osatuko dute. Inprimakiaren bukaeran lauki bat agertuko da non honako hauek onartuko baitira: Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea eta epaimahaiaren erabakiei men egitea.

Saritutako argazkiak eta horiek erabiltzeko eskubideak Iruñeko Udalaren jabetzakoak bilakatuko dira.



EPEA:

Argazkiak aurkezteko epea 2022ko urriaren 31n amaituko da, 23:00etan.

SARIAK:

IRUÑA FOKATU SARIAK

Lehen saria: 900 €

Bigarren saria: 600 €

Hirugarren saria: 500 €

2023KO UDAL-EGUTEGIRAKO HAUTATUTAKO ARGAZKIENDAKO SARIAK:

150 €-ko 12 sari. Gure hiriaren erabilerak, ikuspuntuak, ondarea, argiak eta abar islatzen dituen konposizioa baloratuko da.

Kopuru horiei dagokien atxikipena aplikatuko zaie, PFEZ dela medio.

SARI-BANAKETA:

Epaimahai teknikoak bestelako prozedurarik erabaki ezean, abenduan egingen da, CIVIVOXen.

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea eta epaimahaiaren erabakiei men egitea.

Lehiaketaren gainerako oinarriak hemen kontsultatu: www.pamplonaescultura.es edo www.pamplonaescultura.es/eu